

SIDEROMETALURGIA ETA EKIPAMENDU-ONDASUNAK SIDEROMETALURGIA Y BIENES DE EQUIPO

Gipuzkoa
Andoain

BRAHER



(Josune Zaldúa)

Carlos Martínez Cebolla bide-ingeniariak elikadurarako makinak egiteko instalazio-proiektua taxutu zuen 1968an. 1972an, Enrique Hernández Altzibar industria-ingeniariak biltegirako nabea eraiki zuen atzeko aldean. Lantegia Andoain eta Urnieta lotzen dituen errepidearekin paraleloan dago. Bi solairuko eraikina da; bigarren solairua lehendabizikoa baino irtenago dago, eta estalki buruduna du. Egitura hormigoi armatuzkoa da, eta arkupeak ditu. Beheko solairuko fatxadako itxiturak asta erdiko hormakoak dira eta danbor-trenkada daukate. Kanpoaldeari dagokionez, ageriko adreilu gorri estalita dauka fatxada gehiena. Argia hormetako baoetatik sartzen da, bi bao-erregistroren bitartez: lehendabizikoa, aurrealdeko fatxada osoa hartzen duen bao jarraitua, bigarren solairuaren goiko aldean dagoena; bigarrena, berriz, lehen solairuan dago. Aurrealdeko fatxadan enpresaren izena eta logotipoa daude erliebean, adreiluzko itxituraren gainean. Ezaugarri horiekin guztiekin eraikin interesgarria altxatu zuten, arkitektura modernoa interpretatzeko modu modernoei erantzunez. Funtzionaltasuna lerroen harmoniarekin uztarturik dago, baita solairuen arteko egitura-jokoarekin ere (ageriko adreiluen horma-atalak, banda kareberrituak eta paramentuetan erritmo desberdinak ezartzen dituzten baoak). 2012an monumentu izendatu dute.

En 1968 el ingeniero de caminos Carlos Martínez Cebolla proyecta una instalación orientada a la fabricación de maquinaria para la alimentación. En 1972 el ingeniero industrial Enrique Hernandez Alcibar construye la nave para almacén en la parte trasera. La fábrica se sitúa paralelamente al eje de la carretera de Andoain-Urnieta. Es un edificio de dos pisos, el segundo volado sobre el primero, y cubierta adintelada. La estructura es de hormigón armado, con pórticos. Los cierres de la fachada en la planta baja son de muro de media asta con tabique tambor. En la parte exterior, en cambio, se reviste de ladrillo rojo a cara vista en la mayor parte de la fachada. La iluminación es muraria y se consigue a través de dos registros de vanos: el primero, un vano corrido que recorre toda la fachada frontal, está situado en la parte superior del segundo piso; el segundo, por su parte, se ubica en el primer piso. En la fachada frontal se sitúa el nombre y el logotipo de la empresa en relieve sobre el cerramiento en ladrillo. Todo ello ayuda a configurar un interesante edificio que responde a una nueva interpretación de la arquitectura moderna en la que se conjuga la funcionalidad con la armonía de líneas y juego de texturas entre los diferentes pisos, entre lienzos de ladrillo visto, bandas en revoque y vanos que establecen diferentes ritmos en los paramentos. Declarada Monumento en el año 2012.